Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Atxa Ozerin

Basauri, Bizkaia (1921)

Aurkibidea

Biografia

Ibarguenen jaio zen bere ama bezala, aita, ostera Laudiokoa zuen, biak euskaldunak. Euskara apur bat nahastuta zuen, baina ondo egiten zuen. Ibarguenetik Uriartera joan zen bizitzen. Bilbon 15 urte eman zituen, ezkondu aurretik. Euskaraz sarritan egiten zuen.

Zintak

BSR-017

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-05-01
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Ibarguenen jaioa

- **Erref**: BSR-017/002
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:03:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Mirenen aita Laudio jaio zen arren Ibarguenera joan zen txikitan. Miren Ibarguenen jaioa da.

2. San Migeletik kanpo denbora asko

- **Erref**: BSR-017/006
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:09:31. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Nahiz eta bertara ezkondu, San Migeletik kanpora denbora asko igaro duela kontatzen du. Bilbon eman zituen 15 urte ezkondu aurretik.

Transkripzioa
- Bueno zuk igual hango kontue apur bet...
- Ez nik ama... gazterik urten ta gero gazteri guztien ba... Bilbon, zer?
- Bai, bai, bai.
- Gauza asko.
- Bilbon hamabost urte emon zendun e?
- Bai. Ezkondu baino lehenotik.
- Ze lekuten ba Bilbon?
- Ni kale Principen. Tripan. Kale Principen.
- Bai, bai. Ta gero hona biribiltan ezta?
- Ezkondu San Migelera.
- A ezkondu eta San Migelera, joe.
- Hainbeste urte egiña han, ta gero ba San Migelera, ta gero hau etxean apunta netzenian ta hainbeste urte ez euren emon... hamabi urte edo. Ezkon barik in gendun ta [...] eduki genduzen lau ume. Hau txikerra hemen jaioa da.
- Bai, bai, bai.
- Josu.

3. Baserritik Bilbora

- **Erref**: BSR-017/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:23:16. **Bukatu**: 00:25:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserrian baratzea baino ez zuten. Aitak, Euskaldunan lan egiten zuenez Bilbora joan behar izan zuen gaztetan eta ondorioz, ez zuen baserrian lan handiegirik egiteko aukerarik izan. Bilbon bizitzea baserrian bizitzea baino nahiago zuen. Gaur egun, nahiago du Basauri ordea; gaztetan Bilboko zaratak ez omen zion eragozten.

Transkripzioa
- Ordun han, baserriko bizimoduez zu akordetan zara? Zer egiten zenuten eta hori?
- Guk ez. Guk ez dogu ein. Baserria... bai baserri uzena bai baie ez dogu eduki... ortu txiker bat, ortu txiker bat etxe ondoan, eta bestean eduki gendun ba fronteran esaten gendunean, Ibarguen.
- Bai, Ibarguen bai.
- Haregaz. Ta gero aitte biharrian euskaldunan.
- Euskaldunan, Bilbon? Ta orduen zu ez zauz ibilita ortuen beharrean.
- Hamalau urte, hamabost eitteko Bilbora joan nintzen,
- Karo.
- Han Bilbon ez dau hortako astirik.
- Ta gustorago... hobeto non bizi izin zara zu? San Migelen, Bilbon, hemen, bietan...
- Ni Bilbon gustona. Danean ondo baia Bilbon zerak esan osten behin batek "oi en Bilbao aquel ruido a coche" nik asmau bere ez nun eitten.
- Ez?
- Ta trenbidia eduki gendun han Portugeleteko estazio... trena.
- Bai.
- Ba pare-parean, baie entzun bez. Noz [...]hola txarra izatuz gero, noiz [...], baie ondo egonez gero gaztetan nork entzun?
- Bai, bai.
- Ta ordun zuk gurago igual Bilboko bizimodue?
- Ni bilbon gustora, bai, ni han ederra! Pozik eon naz hemen bere bai! Orain aukera ona zera izingo da...
- Ta zer deko Bilbo holan gustetako?
- A ba nik ez dakit zer dekon baie nitzat ni askotan eondu naz [...].
- Ta orain trankillago Basaurin, ezta?
- Hori bai, bai.
- Zarata gitxiau ta holan.
- Gaztetan ez da umetan ez zaratarik ez ezer. Gero bai, gero zahartzaroan ta ez dozule lo in edo zeuzer...
- Jo ba hemeko partien ez dao holan zarata handirik be, ezta?
- Zaratarik... gauza bat be ez da aditzen.

4. Bilbon bizi zen gerra garaian

- **Erref**: BSR-017/013
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:26:01. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian Bilbon bizi zen. Sirenak eta kanpaiak gogoan ditu. Goserik ez zuela pasa kontatzen du. Garai gogorrenetan, Karrantzara joan zen beldurraren eraginez. Zortzi egun pasa zituen bertan.

5. Euskara gehiago umea zela

- **Erref**: BSR-017/017
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:33:28. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:
Hitanoa ez du gogoratzen. Umetan, gaztelerazko hitzak erabiltzeagatik errieta egiten omen zien aitak. Euskara batua ulertzeko zailtasunak izan arren, arreta jartzen badu, ulertzeko arazorik ez duela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-21

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com